

IKASTETXEA	IES Pedro de Ursua		22-1C-12
IZENBURUA	Arma Negozioa	MAILA	DBH 4. maila
IRAKASLEA	<i>Arkaitz Errazkin Beltza</i>	IKASGAIA	Hezkuntza etiko-zibikoa

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

## TESTUA

### Izenburua

#### TALAIAN

#### Arma negozioa

Carme Chacón Espainiako Estatuko Defentsa ministroak iragarri du, datozen asteotan Gobernuak alde bakarreko luzamendua onartuko duela luku bonbak erabiltzeko, ekoizteko, biltegian jasotzeko, erosteko eta eskuz aldatzeko. Bestalde, Espainiako Estatuan munizio horiek ezabatzea aginduko du. Zer dira luku bonbak? Jostailu itxura dute tramankuluok eta hogeita hiru gatazka armatu baino gehiagotan erabili dira munduan zehar. 100.000 pertsonatik gora hil dituzte eta beste milaka zibil elbarri utzi, bereziki haurrak. Zergatik haurrak? Bonbak jostailutzat hartzen dituztelako. Haurrek bonbak lurrian ikusi eta eskutan hartu edo ostikoz jotzen dituzte. Batzuk hil egin dira eta beste batzuek besoak edo hankak galdu dituzte. Horrelako bonbak, eta baita astunagoak eta arinagoak ere, Euskal Herrian egin izan dira. Gasteizen sortutako EXPAL (Explosivos Alaveses) enpresak arma jostailu horiek erruz ekoitzi, esportatu eta baliatu ditu, Instalaza eta Santa Barbara enpresek egin duten bezalaxe.

Espainiar ministroak esan du luku bonbak "sententziarik gabeko heriotz zigorra" direla. Hala bada, nork dio giza eskubideak defendatzen dituela? Nolatan begiratu dute bestaldera orain arte? Horrelako armak ekoiztea debekatuko al dute, seguru? Alabaina, zergatik jarraitzen dute horiek adina hilgarri edo hilgarriagoak diren armak, –hala nola, borrokarako hegazkin europarrak, erasorako Tigre helikopteroak eta Leopard kanoi modernoak– ekoizten? Euskal Herriko hainbat enpresek (Sapa, Sener, Aernova, ITP eta hainbat ikerketa zentro) ekoizten dituzte eta baita Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu ere. Horiek ez dira "sententziarik gabeko heriotz zigorrak"? Armak ekoiztea negozio galanta da enpresentzat eta horiek finantzatzen dituztenentzat, bereziki BBVArentzat. Giza eskubideak propaganda eta demagogia hutsa dira.

*Juan Mari Arregi*

**Egilea:** Juan Mari Arregi  
**Iturria:** Argia aldizkaria, 2008ko uztailaren 20a

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	Juan Mari Arregi
IZENBURUA	Arma negozioia
ARGITALETXEA/Webgunea	Argia
URTEA	2008
ORRIALDEA (K)	54
ISBN	
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Argudiozkoa
ERABILERA	Publikoa

## **ESTRATEGIAK**

### **IRAKURRI BAINO LEHEN**

- 1. Irakurketaren helburua:** arma-negozioaren inguruan gogoeta egitea, ikasleen artean eztabaida piztuz.
- 2. Irakurri aurreko hipotesiak egitea:** Ikasleei iritzi artikulua izenburua eman, “Arma negozioia”, eta edukiari buruzko hipotesiak egiteko eskatuko zaie. Aipatutako ideiak arbelean idatziko dira.
- 3. Aurrezagutzak aktibatzea:** Iritzi artikuluei buruz dituzten aurrezagutzak gogoratuko ditugu: Zer da iritzi artikulua bat? Zer helburu izaten du? Non aurki daiteke? Zer antolakuntza izan ohi du?

OHARRAK

### **IRAKURRI BITARTEAN**

- 1. Laburpen partzialak:** Irakurri ahala, irakurritakoa laburtu eta ideia nagusiak azpimarratuko dira. Batez ere, paragrafo bakoitzeko ideia nagusia ateratzen saiatuko gara: 1. paragrafoan azalpen objektiboa (luku bonben ezaugarriak, Euskal Herrian ere ekoizten direnak), eta 2. paragrafoan egilearen iritzia, armagintzaren inguruan gobernu eta enpresen jokabidea dela eta.
- 2. Informazio garrantzitsua markatzeko estrategiak (azpimarratzea):** ulertzen ez diren hitz edo esaldiak eta ideia nagusiak azpimarratzeko eskatuko zaie ikasleei: luku bonbak, “sententziarik gabeko heriotza zigorra”, giza eskubideak, demagogia... Ondoren, hitz edo esaldi horien esanahia hiztegian bilatzeko.

OHARRAK

### **IRAKURRI ONDOREN**

**1. Testuaren laburpena egitea:** Ikasleei testuko ideia nagusiak identifikatzeko eta laburbiltzeko eskatuko zaie. Horretarako, laburpen partzialetan jasotako ideia nagusiak eta azpimarratutakoak erabiliko dira.

Idea nagusiak: Espainiak luku bonben erabileran luzamendua onartu du. Luku bonben biktimak haurrak dira nagusiki. Euskal Herrian ere fabrikatzen dira. Luku bonbak baztertzea erabaki dute “sententziarik gabeko heriotza zigorra” direlakoan. Baina arma arriskutsu eta hilgarriagoak ez dituzte debekatu. Arma negozioa giza eskubideak baino garrantzitsuagoak dira praktikan.

**2. Hipotesiak baieztatzea:** Irakurri baino lehen, arbelean idatzitako hipotesietatik egokiak zein ziren berrikusi eta zer informazio berri jaso duten aipatu.

OHARRAK